

# Daniel Innerarity

## «Presioa oso handia da munduak forma politikorik izan ez dezan»



Bilbo, 1959. Nafar nahiz arabar jatorrikoa, Innerarity abizenak bere sueziar askazia agertu arren. Filosofian doktorea. Zaragozako Unibertsitatean nahiz Parisko Sorbonan dihardu. *Le Nouvel Observateur*rek munduko 50 pentsalari onenen artean ipini zuen 2003an. *Ética de la hospitalidad*, *La transformación de la política*, *La sociedad invisible* edo *El nuevo espacio público* dira bere azken lanak. Guk kaleratzeaz den *Le futur et ses ennemies* liburuaren gainean oinarritu dugu solasaldia.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Eusko Ikaskuntza Saria jasoko du udazken honetan. Giza harremana, artea, kultura edota zientzia soziale-tan nabarmendutako lanak hartzen ditu kontuan sari honek. 2008an, Daniel Innerarity pentsalariaren lana hartu du aintzat Eusko Ikaskuntzak. Flammarion argitaletxeak *Le futur et ses ennemis (Etorkizuna eta bere arerioak)* liburua kaleratu baino lehen —egileari esker— irakurtzeko parada izan dugu. Datorren elkarrizketa “ez ohikoa” da. Alegia, galderetan beretan elkarrizketa egilearen beraren barne gogoetak baitoaz. Esan dezagun elkarrizketa gogoeta-solasa bihurtu dela. Gizarte demokratikoen etorkizuna hartu dugu hizpide abiatzeko. Daniel Innerarityk Eusko Jaurlearitzaren herri galdeketa eta geure etorkizun politikoak bere iritzia ere eman digu.

**Zure lanak bete-beteaz aztertzen du egungo tirania edo nagusikeria. “Denbora”ri buruzko gogoetak dira zure lanaren eta gure gizartearen etorkizuneko gakoa. Gogoeta horiek egungo pentsamoldea berritzera datoz nolabait. Ados zaude azalpen horrekin?**

Espazioa ia obsesio bihurtzeraino ageri da gizarteari buruzko azken teorian, globalizazioaren kategoriaren bitartez esaterako, eta horrek “denbora” faktorea eta denborak komunitateak sortzeko eta deuseztatzeko eta sinkronizatzeke edo baztertzeko bektore gisa funtzionatzeko duen indarra ahaztera eraman gaitu. Hain zuzen ere horixe da egun nire kezka, denborari buruzko gogoeta oinarritzeko kategorian gisa txertatzea, gure gizartearen izaera, erritmoa, helburuak, gatazkak eta politika berritzeko aukerak ulertzeko.

**“Etorkizunerako etika” proposatzen duzu eta gakoa transmisioa dela diozu. Zer da transmisioa hitz gutxitan?**

Nire irudiko egungo gizarteek oso modu larrian arriskatzeko dute etorkizuna. Egungo belaunaldiak etorkizuneko belaunaldien kontura bizi dira, eta etorkizuneko etikaren gunea haxe da: etorkizunak pisu politikoa nola har dezakeen pentsatzea, zeregin politikoetan nola sartu asmatzea. Iraunkortasunak eta bestelako gaiak pentsamoldea aldatzea

**“Egungo gizarteek oso modu larrian arriskatzeko dute etorkizuna. Egungo belaunaldiak etorkizuneko belaunaldien kontura bizi dira”**

dakarte eta bizi direnen diktaduratik ateratzeko exijitzen digute, gure gogoetetan existitzen ez direnak ere kontuan hartzeko; ingurumen osasuntsua eskuratzeko eskubidea dutelako, baita erakunde orekatuak eta ekonomikoki segurua den gizarte zerbitzuen sistema ere.

**Etorkizunaren ezagutza.**

**Berrikuntza eta sormena nagusi dira gure gizartearen. Errealitatea kontrolatzen dugula ziurtatu nahi dugu. Baina gure eguneroko bizimodua etorkizunari buruz egindako aipamenei menpe bizi da, etorkizunari buruz dugun ezagutza espekulazioaren ondorio da. Ez dugu behatzen, ordea. Galdu egin ote dugu gizakiok ikuspegi historiko hori?**

Egungo eta berehalako kontuekin lanpetuegi gaudela iruditzen zait, ez diegula ia arretarik ematen joera edo aldaketa sakonei. Errealitateari epe luzera begiratuz baino ez dira horiek guztiak antzematen nire ustez. Egungoaren tiranokeriak itsututa gauzka. Ikustea aurreratzea da, eta berehalakoaz

**“Nire kezka, denborari buruzko gogoeta oinarritzeko kategorian gisa txertatzea da, gure gizartearen izaera, erritmoa, helburuak, gatazkak eta politika berritzeko aukerak ulertzeko”.**

baino arduratzen ez direnak egon nahi ez duten lekura iristen dira azkenean. Itsasoan igerian ari garela inguruan, metro koadro batean, daukaguna ikustearen parekoa da, itsas hondoko korronteei jaramonik egin gabe.

**Jarraitzeak biziberritzea ekarri izan du. Prospektiba, horixe da gako-hitza. Liburuan dioenez, haxe da gakoa: “Denbora homogenea dela sinetsita pentsatzen eta jarduten duen iraungi/zahartu ereduari ez jarraitzea. Etorkizuna bere erabakien arabera eraldatzea da gizarte modernoaren akatsa”. Denbora homogeenaren aldagai historikoa “aldatu” egin al da?**

Etorkizuna ezagutzeko irudimena behar da, gizarte dinamikoetan etorkizuna ez baita egungoaren jarraipen hutsa. Ziurgabetasun handiagoz bizitzen ikastea ere eskatzen du. Izan ere, etorkizuna ez dago aurrez erabakita, gero eta arrisurfaktore eta konplexutasun gehiago daude, eta horiek guztiak kudeatzen jakin behar dugu.



## EUSKO JAURLARITZAREN HERRI GALDEKETA

## "Biktimismoan oinarritutako jarduera orok porrot egingo du"

**Zer irizten diozu Eusko Jaurlaritzak proposatutako galdeketari?**

Bat nator ez zaiola ETArri utzi behar euskal autogobernuari dagozkion zeregin politikoak noiz eta nola jorratu behar diren erabakitzeke giltza. Baina egungo egoera diseinatzean erantzukizun handiena izan dutenek –funtsean lehendakariarekin eztabaidatzeari Zapaterok uko egin izanak eta lehendakariak bere bide-orria aldatu ez izanak– hauxe lortu dute: ETak erabaki zuen galdeketa onartu zuen osokoaren emaitza, eta aurrerantzeko jokaera erabakitzen ere saiatuko da.

**Nola eskuratu horrenbestez, gizarte demokratikora iristeko giltza?**

Berriro ere euskal gizartea da gakoa, ez galdeketarik egin ezin ez duena, bere iritzia behin eta berriz baliatzen duena baizik. Azken Euskobarometroak euskal gizarteari buruz emandako datuetan ez dago ia zalantzarik: galdeketa ez du ez gogo ez eta haserre handirik eragiten, beraz, biktimismoan oinarritutako jarduera orok porrot egingo du. Azterketa horrek eta beste batzuek etengabe

erakusten dute herritar gehienek hiru printzipiori jarraitzen dietela:

1. Autogobernua sakontzeko borondate argia dago, urteetan alde bakarrera mugatuta egon ostean, bere jatorrizko zentzua, adostasuneko ale-gia, berreskuratzeko.

2. Gizarteak elkarrizketaren aldeko lidergo integratzailea nahi du, gizarte helduaren ordezkari dena eta dramatizatutako liskarrek gidatzen ez dutena.

3. Indarkeria baztertzeko hitzarmen zabala lortu behar da, ETak gero eta indar gutxiago izan dezan bizimodu politikoan.

Ezinbestekoa da hiru horiei arreta ematea Euskadin gizartearen gehiengoa lortzeko. Hiru printzipio horietan oinarrituta bide orekatu eta sinesgarria proposatzen duenak euskal gizartearen konfiantza eskuratuko du, eta datozen urteetan gatazkatik libre utziko du.

Beharrak ezagutzetik joerak onartze-ra igaro gara. Politika –bere programa, erreforma eta estrategiekin–, egokitzeke logikaren menpe dago. Horixe da politikaren eta klase politikoaren egungo krisia. Gizarteak erronka berriei egin behar die aurre: malgutasun handiagoko behar du eta bere mugak ondo ezagutu. Horretarako gai dela uste duzu?

Bereziki amorrarazten nau egoera berrietara egokitu behar dugulako lelo horrek, egungo diskurtso politikoan etengabe aipatzen dena. Etorkizuna eraiki egin behar da, baina badakigu etorkizuna eraikitzeak ez duela etorkizuna gure

menpe jarriko, eta beraz, ezingo dugula alde zuzenetik iragarri. Politikak ez du hautatu behar: errealitatearen menpe egon edo errealitatea erabat kontrolatu; eraikitzeke eta gobernatzeke, tarteko bideak daude, eta horiek aztertu beharko genituzke.

**Kronopolitika: gizarte erritmoak gobernatzea.**

Azkarren tiraniak zuzentzen bide du mundua. Denboraren eraginkortasunaren, eztabaidarako denboraren eta eztabaida legezkatat jotzearen arteko kontraesanaren menpe bizi da politika. Zientziaren eta teknikaren

garapena ez da gizarte garapenaren pareko. Desinkronizazioa gakoa da munduan, mundu globalizatuan, gizarteko bidegabekeriak ulertzeko. Denbora demokratizatu daiteke? Antola daiteke botere bat denboraren gainean?

Nire ikuspegitik, gobernatzea gizarte denborak, gizon-emakumeenak, ekonomiarenak eta zientziarenak, kontsumoarenak eta ingurumenarenak, sinkronizatzea baino ez da. Beste garai batzuetan zaintza-dorreak eraikitzen zituzten lurraldea zaintzeko, eta egun beharrezkoa da gizarte denborak behatzea. Horretan datza guztia: etorki-



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA  
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea



zuna, bazterketaren aurkako borroka, berdintasuna...

Historia aldatu egin da eta kontraesan hau gertatu da: ezkertiar progresistek desazelerazioa nahi dute, kontserbadoreek, berriz, azelerazioa. Hori da ideologia historiko logikoa "desitxuratzeko" duen paradoxetako bat. Estatuak mantso doaz eragiketa globalen abiaduraren aldean. Gizarte modernok dinamizatzen dituen estatuak gizartea moteltzen du. Politika bera anakronismo huts bihurtzeraino. Mundua "forma politikorik" gabe gobernatzeraren behartuta al dago?

Bada paradoxa bat asko interesatzen zaidana, eta ezkertiarren eta eskuinekoen arteko truke edo maileru horietan antzematen da. Egun, eskuinaren hizkuntza ezkertiarrena baino "aurrerakoia" eta dinamizatzaileagoa da, ezkertiarrek konpontzaileak eta malenkoniatsiak baitira, eta gizarte konkistak "kontserbatzea" baitute helburu. Egungo "atzerakoiek" etorkizuna deuseztatzen dute, desinkronizatzen eta baztertzen duen azelerazioaren bitartez... hain zuzen ere etorkizunaren inguruan; despolitizatzaileak dira. Presioa handia da, munduak forma politikorik izan ez dezan. Horregatik, demokratikoki borondate politikoa bat sortzeko denboran dituen ezaugarriak, erabakitze prozedurak, gogoeta egiteko eta negoziatzeko moduak babestean datza gure erronka nagusia, behar tekniko-ekonomikoen inperialismoaren eta komunikabideek denborari ematen dizkioten astinduen aurrean.

**Geldotasun politikoa aurre egiteko aurrerapen prospektiboa lantzea proposatzen duzu zuk. Laburtu ideia hori, mesedez.**

Politika motela da teknikaren, komunikabideen edo ekonomiaren abiadurarekin alderatuz gero. Prozesuak azkartuz horiek harrapatzen saiatzen da, baina ezin du. Prospektibaren bitartez politikak ez luke norabiderik eta zentzurik gabe igarotzen duen denbora hori guztia galduko. Prospektibak ikasketa prozesu bihurtaria izan behar du, gertatu aurretik jokatzeko baldintzak eta metodoak aldatzen dituena.



"Bereziki amorrarazten nau egoera berrietara egokitu behar dugulako lelo horrek, egungo diskurtso politikoan etengabe aipatzen dena".

### Gizarte esperantzaren eraikuntza politikoa.

Kant aipatzen duzu liburuan eta haxe galdetu etorkizunaz: Zer eza gutzen dugu? Zer egin behar dugu? Zer espero dezakegu? Itxarotea. Gizarte esperantza. Nietschek berriz "esperantza gaizkia" dela dio. Denborak lantzea eta zibilizatzea proposatzen duzu, horiek okupatzea, esperantza da horretarako kodea. Historia eta esperantza uztartuz, etsipenaren ostean esperantza politikoa eraikiko dugulakoan.

Egun etorkizunarekin daukagun harremana aztertzen badugu, mendealdiko demokraziek etorkizunarekin duten harremana, berrikuntzaren liturgia eta ilusioari buruzko gogoeta guztiak gorabehera, nire ustez XXI. mende hasieran konfiantzarik eza da ezaugarri nagusia. Ez daukagu gizarteari esperantza emateko sistema handirik, ez eta amets egiteko utopiarik edo indar komunak martxan jartzeko helbururik ere. Ikuspegi falta horrekin batera, ekintza politikak ere nahiago du kritika ez piztea, helburu edo aldaketak handietara begira mugiaraztea baino. Izan ere, herritarrei gehiago eragiten diete arriskuek aukerak baino. Ez da promesa handiak egite-

ko unea ere; haserretzeko, mintzeko eta biktima sentitzeko energia negatiboak mugiarazten ditu politikak. Horren aurrean proiektu politikoek esperantza, arrazoizkoa eta jakintsua, sortu behar dutela pentsatzea proposatzen dut. Inertzia baino ez baita izango bestela aurrera egiteko.

### Gizarte post-heroikoaren politika.

Xarma galtzea... Konfiantza eza... Zuk ez duzu uste jendeari politika interesatzen ez zaionik, halere. Despolitizatu baino gehiago, politikak sakratutasuna galdu du. Diozunez, demokraziek interes falta handia jasan dezakete. Baina gai izango dira kultura politikoa berri baterako aldaketa "jasateko"? Eta baietz diozu. Horixe arrazoitzen duzu liburuan. Laburtuko?

Ez da komeni "konfiantza falta" hori gaizki ulertzea. Ez dugu ahaztu behar botere absolutuarekiko konfiantza falta gure erakunde politikoaren jatorrian dagoela. Demokrazia konfiantza mugatu eta ezeztagarriko sistema izan da betidanik. Politikariek gabeko gizartearen, ez ote gaitu etsitzen antzinako lidergo politikorik ez izateak? Hau da, lidergo enfatico eta hierarkikoa, ez horren demokratikoa.

Egungo konfiantzarik eza bat dator heroikoa ez den eta politika lehengo dramatismorik gabe bizi duen gizarte aldaketa logikoarekin. Ez da gauza bera demokraziak gogo bizirik ez sortzea eta etsipen horrek gure bizimodu politikotik aldentzeko joera sortzea. Egunkariak edo alderdiak oso gustuko ez izateak, esaterako, ez du esan nahi horiek desagertzea nahi dugunik. Politikari sakratutasuna kentzeak ez du esan nahi edozer onartzeko prest gaudenik. Baina pasiorik eta grinarik gabeko jarrera dugu politikarekiko. Politikarik gabeko etorkizunaz baino gehiago, politikari sakratutasuna kentzen dion etorkizunaz ari gara gehiago. Politikari arretarik ematen ez diotenek etengabe abantailak espero dituzte politikatik, eta politikak beren exijentziak eta nahikeriak betetzen dituen zaintzeaz arduratzen dira. Baina horien helburuak ez dira guztia hartzen duen politika heroikoan kokatzen.

Hala ere, gizartea ordezkatzeko duen demokrazia babesten duzunean, zehaztasun asko daude, eta gure kultura politikoa krisian dela ere onartzen duzu. Zuzenketa asko behar ditu, baina ez duzu ordezko egokirik dagoenik uste. Politika aukera eta arriskua da. *Non futur pentsamenduaren aurrean baikor zaude. Berez zara baikorra, edo beharrezkoa delako?*

Optimista izatea behar moralala da nire ustez. Munduan zorte txarreko asko daude, egoera gaizki dagoela gogorarazten digute etengabe eta ez digute horiek konpontzeko ino-

lako biderik proposatzen. Optimismoa, ordea, estrategia jakintsuetan oinarritzen da, edo gutxien dakitenak nahasteko amua da. Horregatik, nahiago dut esperantza politikoaz hitz egitea. Helburuekin kontuz ibiltzen erakusten digu esperantzak. Sistema politikoan automatikoki inolako konfiantzarik ez izateak zerikusi handiagoa du erakundeen ahalmenearekin, gure helburuen hipertrofiarekin baino. Politikak lorpen heroikoen osperik ez badu ere, gizarte proiektu eraldatzaileen ikuspegi mesianikoak etsipen enfatiko edo proposamen apokaliptiko bihurtu dira. Gogo falta horretan lortu gabeko helburuak daude, eta ez dugu ikasi horre-

**“Etsipenek exijentzia eta desadostasun berriak proposatzen dituzte, eta gizartea garatzeko indarra dira. Horregatik, eszeptizismo optimistaren alde egiten dut”**

kin bizitzen. Horretarako, etsipena heroikotasunaren ostan kudeatzen ikasi behar du politikak eta aukeraz beteriko eremu gisa ulertu behar du. Etsipenek –saihestezinak direnak– exijentzia eta desadostasun berriak proposatzen dituzte, eta gizartea garatzeko indarra dira. Horregatik, eszeptizismo optimistaren alde egiten dut, gauza seguru gutxi baina aukera asko duena. Ildo horretan, esperantza demokratikoa

ere aipa genezake, ez inozoa eta ez gehiegi fidatzen dena, etsipena eza gutzen duena eta horri esker promesekin gehiegi fidatzen ez dena, baina esperientziari esker, onena lortzea espero duena.

**Amaitze aldera. Zure liburuan gizarte post-heroikoa aipatzen duzu. Nola islatuko zenuke hori Euskal Herrian? Gure herrian, ETA fenomenoak kontraesanean jartzen du errealitate hori interpretatzeko modua. Zenbait intelektualek edo pentsalarik ez dute errealitatea interpretatzeko modu hori.**

Euskadirako ere balio dute gainerako herrialdeetarako balio duten formulek. Ez gara horren arraroak edo bereziak. Egia da baieztapen heroikoen bidegurutzan gaudela. Diskurtso politikoan heroiak, biktimak, martiriak eta errudunak daude, eta borrokalekua lagunek eta etsaiek baino ez dute antolatzen; hau da, guk eta haiek. Hala ere, egiazki dirudien bezalakoa da? Garai epikoetan gaudela esan nahi du? Politika gerra lorpenzat ulertzen eta bizi dugula? Egoera hori egoki interpretatzeko, erretorikaren itzulpen praktikoa –erretorika baino dramatikoa– den zerbaitean aurrean egongo bagina bezala– logikoa izango litzatekeen pentsatu behar dugu. Egia esan, egungo egoera politikoaren oraina ez da diskurtsoetan azaltzen dena baino lasaiagoa. Oraina halamoduzkoa da, etsigarria, baina hala ere ez dute heroiek kudeatzen, ez eta porrotek eta garaipe- nek erabakitzen ere. ■



*Atxaspi* hotela

Bittoria kalea 24 • 31770 LESAKA  
Tel.: 948 637 536 • www.atxaspi.com